



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## PRENTSA-OHARRA

# ALDUNDIAK AURREIKUSI DAUENEZ “2022KO HIRUGARREN HIRUHILEKOAN” EKARRIKO DAU ERREPIDEEN PLAN BARRIA BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETARA

- **Aldundiaren asmoa Bizkaiko Batzarretan “ahalik eta adostasun handiena” lortzea da, Bizkaiko Errepideen II. Lurralde Plan Sektorialaren Foru Araua onartzeko.**
- **Oposizinoak “lanerako mahaiak” sortzeko eskatu dau, dokumentuan ideak gehitu ahal izateko.**
- **13 kilometrorainoko ibilbide laburretan motordun ibilgailuakaz egiten diran 900.000 bidaia baino gehiagoetatik Aldundiak egunero 155.000 bidaia bizikletara aldatzea dauka helburu moduan.**

(*Bilbon, 2021eko zezeilaren 17an*). Imanol Pradales Azpiegitura eta Lurralde Garapeneko diputatuak Bizkaiko Errepideen II. Lurralde Plan Sektorialak Bizkaiko Batzar Nagusietan onartzeko egin behar dituan izapideak azaldu ditu gaur. Aldundiaren asmoa Bizkaiko Batzarretan “ahalik eta adostasun handiena” lortzea da, “2022ko hirugarren hiruhilekoan” hasiko dan eztabaida prozesuan. Oposizinoak “lanerako mahaiak” sortzeko eskatu dau, Batzarretako taldeek euren ideak azken dokumentuan sartu ahal izateko.

Onartu aurretik, foru-araua onartzeko izapideak 8 fase bete beharko ditu. Lehenengo biak daborduko gauzatu dira, planaren aurrerapena eta parte-hartze prozesua, hain zuzen be. Azken hori abenduaren 17an amaitu zan, Bizkaiko eskualde guztietan egin ziran “8 topaketa birtualen” bitartez, “100 persona baino gehiagoren” parte-hartzeagaz eta “200 iradokizun baino gehiagoren” ekarpenagaz. Hemendik aurrera, datozen urteetan, beharrezkoa izango da aurreproiektu bat eta ingurumen-azterlan estrategiko bat egitea (2021eko udan), jente aurrean jartea (2021eko uztaila-urrian), planaren behin betiko proiektua egitea (2022ko urtarrilean), Ingurumen Adierazpen Estrategikoa egitea (2022ko garagarrilean), Euskadiko Garraio Agintaritzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorraren Batzordearen derrigorrezko txostenak egitea eta, azkenik, foru arauaren eztabaidea eta onespena Batzar Nagusietan lantzea. Prozesu hori 2022ko hirugarren hiruhilekotik aurrera hasiko da, Gobernu Kontsejuan onartu ostean.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Pradalesek azaldu dauenez, 1999an indarrean egoana ordeztuko dauen plan hau, mobikortasun iraunkorraren erronkari erantzuteko Bizkaiko errepideetan hurrengo bosturtekoetan sartuko diran xedapenak, helburuak, lehentasunak eta hobekuntzak ezarten dituan plangintzarako tresnea da. Klima larrialdiko egungo egoeran, mobikortasunaren inguruko “paradigma aldatzea derrigorrezkoa” dala esan dau, denpora guztian ibilgailu pribadua erabilteko joerak joera zentzuzkoagoetara bideratuz.

Pradalesek prozesuan parte hartzeko gonbitea egin deutse Batzarretako Taldeei, herritarrak garraiobide jasangarriagoetara “bideratzeko”, bizikletara, besteak beste. Helburua “bihurguneari buelta emotea” eta “2035ean gaur egun dagon motordun mobikortasun bolumen bera lortzea” da. Horretarako, Aldundiak “egunero 135.000 bidaia” bizikletarantz aldatu gura ditu, orain motordun ibilgailuakaz egiten diran 8 kilometrorainoko ibilbide laburretan. Eta beste “20.000”, zortzi eta hamahiru kilometro arteko joan-etorrietan. Azpiegitura eta Lurralde Garapenerako Sailaren datuen arabera, egunero, Bizkaian, ibilgailu pribaduan egiten dira zortzi kilometrotik beherako 685.000 bidaia, eta zortzi eta hamahiru kilometro bitarteko 220.000.

## ERAIKINAK ERAISTEA GETXO ERDIALDEA EREGITEKO

Elkarrekin Bizkaiak eskatuta, Pradalesek xehetasun batzuk emon ditu, daborduko Azpiegiturak soziedade publikoaren ardurapean dagon Getxoko belaunaldien arteko zentroa zelangoa izango dan azaltzeko. Aurreproiektuak eraikinak eraistea eta bloke barri bat eregitea aurreikusten dau. Bloke barri horrek sotoa, beheko solairua, 4 solairu eta teilatupe bat eukiko ditu, gazteak eta adinekoak alkarregaz biziko diran espazio komunak bitartez berezita. Aldundiak adinekoentzako 100 plaza prestatuko ditu, banakako 76 logelatan eta 12 logela bikotxetan, eta alokairuko 40 apartamentu gazteentzat. Inbertsinoa 13 milioi eurokoa izango da.

Pradalesen kalkuluen arabera, Erromon, auzoari edegita egongo dan zentro “barritzaile eta aitzindaria” “2022ko udabarrian” eregiten hasi ahal izango da, aurreikusitako epeak bete ezker; halanda be, aurretik, lehendik dagozan eraikin biak eraisteko proiektuak, eraikuntza-proiektua eta obra-zuzendaritza lizitau beharko dira. Diputatuak aurreikusten dauenez, esleipenduna “3 edo 4 hilebete barru” hasiko da behin betiko proiektuan beharrean, eta horrek urte amaieran eraisteko fasea hastea erraztuko leuke. Aldundiak darabilen kronogramak erakusten dauenez, 9.000 metro karratuko azalera izango dauen zentroa “2024ko udabarrian” edegiko da, 24 hilebeteko lanen ostean.

## BIDESARIAK EGUNERATZEA ETA BASAURI-ETXEBARRI BIDEGORRIA



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Horrez gain, diputatuak, bere ekimenez, Foru Aldundiaren Foru Dekretuaren barri emoteko agerraldia egin dau; horren bitartez, bide-azpiegitura sareko hainbat tarteren ganeko bidesariaren zenbatekoak eguneratzen dira 2021erako, eta baita azpiegitura horreen erabiltzaileentzako gehieneko gastu-mugea be. Azken kasu horretan, Bidesaria programari atxikitako bizkaitarrek gehienez 33,45 euro ordainduko ditue hilean ordainpeko hiru foru bideetan (AP-8, Supersur eta Artxandako tunelak) egindako ibilbideengaitik. Horrez gain, lurralde arteko gastuaren mugea hilean 48,93 eurokoa izango da Gipuzkoan eta Araban ordaindutako bidesarietarako. Aurkeztutako tarifek “ibilbide bakoitxeko 4 zentimoko igoera” dakarre, Eduardo Andrade ahaldunak gogoratuaz dauenez.

Pradalesek Bizkaian dagon bidesari sistema defendidu dau, berarentzat “gizarte arloko ezkutua” dalako. Azkenengo datuek erakusten dabenez, “21.300 ibilgailuk” erabilten dabe bidesari-bono hori, eta hilean, batez beste, 50,6 euro itzultzen jakez. Sistema martxan jarri zanetik, Aldundiak “25 milioi euro” bideratu ditu horretara.

Diputatuak azaldu dauenez, pandemiak arrastoa itzi dau diru-sarreretan. 2020an trafikoa % 27,1 jaitsi zanez, “19,9 milioi euro gitxiago” bildu dira autobideetako bidesari moduan. Halanda be, ez dira “zentimo bakar bat be murriztu” Bizkaiko errepideak mantentzeko eta kontserbetako konpromisoak eta inbertsinoak, hori, “ekonomia batera jausten ari dan garaian elementu kontraziklikoa dalako”.

Beste alde batetik, EH Bilduren galderei erantzunez, Pradalesek esan dau “2022. urtearen amaieran” Aldundia Etxebarri eta Basauri arteko bidegorria eregiteko lanak “lizitetako moduan” egongo litzatekela. Une honetan, Aldundia lurraren gaineko azterketa topografikoak eta geologikoak egiten, eta tranbia zaharraren tunelaren egoera aztertzen ari da; aldi berean, udalen erantzunaren zain dago, gas-kanalizazio batek eragindako tarteei jagokenez.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## NOTA DE PRENSA

# LA DIPUTACIÓN PREVÉ TRAER A LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA “EN EL TERCER TRIMESTRE DE 2022” EL NUEVO PLAN DE CARRETERAS

- La voluntad de la Diputación es buscar el “mayor consenso posible” en la Cámara vizcaína para aprobar la Norma Foral del II Plan Territorial Sectorial de Carreteras de Bizkaia.
- La oposición solicita que se creen “mesas de trabajo” para poder aportar ideas al documento.
- La Diputación se marca como objetivo trasvasar a la bicicleta 155.000 viajes diarios, de los más de 900.000 que se realizan a motor en recorridos cortos de hasta 13 kilómetros.

(Bilbao, a 17 de febrero de 2021). El diputado de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, Imanol Pradales, ha explicado hoy los trámites que el II Plan Territorial Sectorial de Carreteras de Bizkaia debe recorrer para su aprobación en las Juntas Generales de Bizkaia. La intención de la Diputación es buscar “el mayor consenso posible” en la Cámara vizcaína en un proceso de debate que prevé iniciarse “en el tercer trimestre de 2022”. La oposición ha pedido que se creen ya “mesas de trabajo” para que los grupos junteros puedan incorporar sus ideas al documento final.

Antes de su aprobación, el trámite de aprobación de la norma foral deberá completar 8 fases. Las dos primeras, han sido resueltas ya, como son el avance del plan y el proceso de participación que finalizó el 17 de diciembre mediante “8 encuentros virtuales” en todas las comarcas de Bizkaia, con la participación de “más de 100 personas” y la aportación de “más de 200 sugerencias”. A partir de aquí, en los próximos años, es necesario elaborar un anteproyecto y un estudio ambiental estratégico (verano de 2021), exponerlo a información pública (julio-octubre de 2021), elaborar el proyecto definitivo del plan (enero de 2022), así como la Declaración Ambiental Estratégica (julio de 2022), los informes preceptivos de la Autoridad del Transporte de Euskadi y de la Comisión del Plan General de Carreteras del País Vasco y, finalmente, abordar en las Juntas Generales de Bizkaia el debate y aprobación de la norma foral, proceso que se iniciará a partir del tercer trimestre de 2022 tras su aprobación en el Consejo de Gobierno

Como ha explicado Pradales, este Plan, que sustituirá al vigente aprobado en 1999, es un instrumento de planificación que establece las disposiciones,



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

objetivos, prioridades y mejoras que se introducirán durante los próximos lustros en las carreteras de Bizkaia para dar respuesta al reto de la movilidad sostenible. En la actual situación de emergencia climática, ha considerado “ineludible un cambio de paradigma” al respecto de la movilidad, reconduciendo tendencias de uso indiscriminado del vehículo privado hacia usos más racionales.

Pradales ha invitado a los grupos junteros a participar en un proceso para ayudar a “reorientar” a la ciudadanía hacia modos de transporte más sostenibles como la bicicleta. El objetivo es “doblegar la curva” y “conseguir en 2035 el mismo volumen de movilidad motorizada que existe hoy”. La Diputación quiere para ello, entre otras cosas, traspasar “135.000 viajes diarios” hacia la bicicleta en los considerados trayectos cortos de hasta 8 kilómetros de distancia que ahora se realizan a motor. Y otros “20.000” para desplazamientos de entre ocho y trece kilómetros. Según los datos del departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, cada día en Bizkaia se realizan en vehículo privado 685.000 viajes de menos de ocho kilómetros, y 220.000 viajes de entre ocho y trece kilómetros.

## DERRIBO DE EDIFICIOS PARA CONSTRUIR EL CENTRO DE GETXO

A solicitud de Elkarrekin Bizkaia, Pradales ha dado también algunos detalles de cómo será el Centro Intergeneracional de Getxo, encomendado ya a la sociedad pública Azpiegiturak. El anteproyecto contempla el derribo de los edificios existentes y la construcción de un bloque nuevo con sótano, planta baja, 4 plantas y un ático, separado por espacios comunes donde convivirán jóvenes y mayores. La Diputación contempla la habilitación de 100 plazas para mayores, en 76 habitaciones individuales y 12 dobles, y 40 apartamentos para jóvenes en régimen de alquiler. La inversión será de 13 millones de euros.

Pradales calcula que el “innovador y pionero” centro que se ubicará en Romo y estará abierto al barrio, pueda empezar a construirse, si se mantienen los plazos previstos, “en la primavera de 2022”, si bien antes se tendrán que licitar los proyectos de derribo de los dos edificios existentes, el proyecto de construcción y la dirección de obra. El diputado espera que en “3 o 4 meses” el adjudicatario pueda empezar a trabajar en el proyecto definitivo, lo que facilitaría que, a finales de este año, comience la fase de derribo. El cronograma que maneja la Diputación es abrir el centro que se asentará en una superficie de 9.000 metros cuadrados, “en la primavera de 2024”, tras 24 meses de obra.

## ACTUALIZACIÓN DE LOS PEAJES Y BIDEGORRI BASAURI-ETXEBARRI



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

El diputado ha comparecido también, a iniciativa propia, para dar cuenta del Decreto Foral de la Diputación por el que se actualizan las cuantías de peaje sobre determinados tramos de la red de infraestructura viaria para el año 2021, así como el límite máximo de gasto para las personas usuarias de estas infraestructuras. En este último caso, los vizcaínos y vizcainas acogidos al programa Bidesaria pagarán como máximo 33,45 euros al mes por los recorridos realizados en las tres vías forales de peaje (AP-8, Supersur y Túneles de Artxanda). Así mismo, el límite de gasto interterritorial será de 48,93 euros al mes para los peajes abonados en Gipuzkoa y Araba. Las distintas tarifas presentadas suponen una “subida” de “4 céntimos por trayecto” según ha recordado el apoderado popular Eduardo Andrade.

Pradales ha defendido el sistema de peajes existente en Bizkaia, que se ha convertido para él en un “escudo social”. Según los últimos datos, “21.300 vehículos” disfrutan de este “bonopeaje”, lo que significa una devolución media mensual de “50,6 euros”. Desde que se puso en marcha el sistema, la Diputación ha destinado “25 millones de euros”.

El diputado ha explicado que la pandemia ha dejado huella en los ingresos. La caída de tráfico del 27,1% en 2020 ha supuesto que se recauden “19,9 millones de euros menos” en concepto de peaje de autopistas. Pese a esto no se “ha reducido ni un solo céntimo” los compromisos de mantenimiento y conservación y las inversiones de diferentes carreteras de Bizkaia, porque es “un elemento contracíclico en un momento en el que la economía cae a bloque”.

Por otro lado, a preguntas de EH Bildu, Pradales ha informado de que “a finales de 2022”, la Diputación estaría “en condiciones de licitar” las obras de construcción del bidegorri entre Etxebarri y Basauri. En estos momentos, la Diputación está realizando los estudios topográficos y geológicos sobre el terreno y analizando el estado del túnel del antiguo tranvía, al tiempo que espera respuesta de los ayuntamientos respecto a los tramos afectados por una canalización de gas.